

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**Diputatu Nagusiaren 332/2019 Dekretua, uztailaren 16koa, zeinaren bidez onesten baita Antoñanako Administrazio Batzarrari eta Kontrastako Administrazio Batzarrari energia eraginkortasunerako dirulaguntzetan emandako epea luzatzea**

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 26ko 31/2018 Foru Dekretuaren bidez, onespena eman zitzaion energia iraunkortasuneko ekintzak sustatzeko dirulaguntza lerroaren 2018-2019ko ekitaldirako deialdiari. Urriaren 31ko 435/2018 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen laguntzen esleipena.

2019ari dagozkion gastuak gauzatzeko azken eguna uztailaren 19a da.

Antoñanako Administrazio Batzarrari 2.930,62 euroko dirulaguntza eman zitzaion ibilgailu elektrikoen bateria kargatzeko gune bat instalatzeko.

2019ko ekainaren 21ean, Antoñanako Administrazio Batzarrak abendura arteko luzapena eskatu zuen aurreikusitako gastuak justifikatzeko, hasierako proiektua hobetu zen eta. Bere idazkian, aipatzen du hasierakoa baino potentzia handiagoko kargagune bat instalatzeko (22kW gabe, 50 kW) IBERDROLAekin egindako lankidetzak akordioa. Horrek berekin ekarriko du karga denbora laburtzea eta, horren ondorioz, azpiegituraren prestazioak hobetzea.

Kontrastako Administrazio Batzarrari 75.000,00 euroko dirulaguntza eman zitzaion biomasa bidezko etxeko berokuntza eta ur bero zentralizaturako (District-Heating) hodi bereziak lur azpian instalatzeko.

2019ko uztailaren 5ean, Kontrastako Administrazio Batzarrak idazkia bidali du, uztailaren amaiera arteko luzapena eskatuz, 300.000 euroko kreditua eskatu behar izan duelako, zeina Arabako Batzar Nagusiek onetsi behar baitute; izapide hori korporazio aldatetarekin batera gertatu da eta horrek geldia egon ditu beharrezko administrazio zuzemenak.

Alegatutako arrazoiak aztertutik, onartu behar dira Antoñanako eta Kontrastako administrazio batzarrek epea kanpo aurkeztutako luzapen eskaerak, 2019ko azaroaren 22ra artekoak, 2019ko urteko dirulaguntza justifikatzeko.

Horregatik guztiagatik, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearen abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 19. artikuluan emandako ahalmenez baliatuz, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Bakarra. 2019ko azaroaren 22ra arteko luzapena ematea Antoñanako Administrazio Batzarrari eta Kontrastako Administrazio Batzarrari, diruz lagundutako jarduera gauzatzeko eta justifikazio agiriak aurkezteko.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 16a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua*

**JOSEAN GALERA CARRILLO**

*Jarduneko Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria*

**M<sup>a</sup> ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE**